

# “MUGIKORTASUN IRAUNKORREN ALDEKO HERRITAR FOROA” ELKARGUNEA

## FUNTZIONAMENDU ARAUAK

### Zer da eta zertarako ?

Mugikortasun Iraunkorren Aldeko Herritar Foroa Gasteizko herritarrek elkarrekin komunikatzeko, iritzia trukatzeko eta parte hartzeko espazioa da.

Hainbestean behin Ingurumenaren Batzorde politikora, edo gaiaren arabera dagokion tokira, informatu eta bertara proposamenak eramaten ditu, politikariek eztabaidatu ahal izateko.

### Zeinek har dezake parte?

Entitate, erakunde eta kolektiboek parte hartzeko aukera dute, eta horretarako ez da Herritarren Entitateen Erregistroan inskribatuta egon beharrik izango.

Norbanakoek ere parte-hartzeko aukera dute.

Gobernu Taldeak eta beste politika-taldeek ere parte hartu ahal dute elkargune honetan.

### Ordezkarriak

Mugikortasun Iraunkorren Aldeko Herritar Foroan parte hartzen duten erakunde eta herritarren artean, ordezkari bat (edo gehiago beharrezkoa bada) aukeratu ahal da.

Bere betebeharrak honako hauek dira:

- Ingurumenaren Udalbatzaren Batzordean, Udal Planeamenduaren Aholku-Kontseiluan, Udaleko Gizarte Kontseiluan edota dagokion lekuan Mugikortasun Iraunkorren Aldeko Herritar Foroaren ordezkaria izatea.<sup>1</sup>
- Eratu daitezkeen lan taldeak eta Elkargunearen saioen deialdiak eta eguneko gai-zerrenda sortzea, Udaleko teknikariek batera.

---

<sup>1</sup> Erakunde edo pertsonaren batek ordezkaritza lan horretan parte hartu nahi badu, mesedez jakinarazi diezagula, hurrengo saioa baino lehen, [elkargune-movilidad@vitoria-gasteiz.org](mailto:elkargune-movilidad@vitoria-gasteiz.org) helbidera posta bat bidalita, hurrengo saioan hautatuak izateko aukera izan dezaten.

## **Idazkaritza eta dinamizazioa**

Udaleko teknikarien ardura, honako hau da:

- Lan plana kudeatzeko Mugikortasun Iraunkorren Aldeko Herritar Foroaren ordezkariarekin batera lan egin eta hura aholkatu.
- Gaiak lantzeko beharrezkoak diren udal agiriak bildu.
- Beste udal sailak bertaratzea beharrezkoa denean, haiekin lan egin.
- Lan-saioak dinamizatu.
- Lan-saioen aktak edota erabakiak jaso.

## **Lan taldeak**

Beharrezkoak diren mahai edo lan taldeak sor daitezke. Baita lantzen diren gaietara buruz beste elkargune edo auzoguneekin koordinatzeko ere.

## **Deialdiak**

Elkargunearen ordezkariak saioen deialdiak egiten ditu, Udaleko teknikariekin batera.

Euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen da deialdia parte hartu nahi duten entitate eta herritarrei, 10 egun lehenago, eta dagozkion agiriak atxikita, horrelakorik egonez gero. Aldi berean, deialdiak web orrian argitaratzen dira, herritarrei jakinarazteko.

Premiazko arrazoiak direla eta, ezohiko saioetara deitu ahal da 3 egun lehenago.

## **Herritarrei informazioa**

Herritarren Parte-Hartzerako Zerbitzuaren lana da herritarrei elkargune honetan egindako lanari buruzko informazio argia eta erraza helaraztea web orriaren eta komunikabideen bidez.

## **Etengabeko ebaluazioa**

Beharrezkoak diren aldaketa eta hobekuntzak egiteko asmoz ebaluazio irizpideak zehaztu dira, udal politikarekin zerikusia duten arloei buruzkoak bai eta funtzionamendu helburuei buruzkoak ere.